



Basque Writing 19

HIZKUNTZA TXIKI BATEAN IDATZI



Basque Writing-eko hemeretzigarren zenbaki hau oso berezia da guretzat. Gure literaturako izenik esanguratsuenetako batzuk bildu ditugu hemen, galdera zabal bati buruz berbetan: nola bizi duten gurea bezalako hizkuntza txiki baten idaztea, beste hizkuntza handiagoetako kideekin daudenean, esaterako. Geroz eta globalizatuagoa den mundu honetan, idazleak ere etengabe bidaiatu behar du, irakurle taldeengana, hitzaldi edo literatur jaialdiak direla eta, lanaren edo itzulpenaren argitalpen eta promozioetatik, eta beste hainbat motibogatik.

Euskaraz idazten duten zazpi lagun bildu ditugu, hainbat erdaratara itzuli diren zazpi idazle. Beren lana etxean bezainbat atzerrian aurkeztu eta defendatu izan duten idazleak dira. Itxaro Borda, Bernardo Atxaga, Laura Mintegi, Kirmen Uribe, Karmele Jaio, Harkaitz Cano eta Mariasun Landa dituzu hurrengo orrialdeotan. Edozein bildumatan leudekeela ere, gutzia ederra litzateke zazpiak batera irakurtzea. Eta badakigu, euskal literaturaren zorionerako, bagenuela beste hainbat ere galdera bera egitea, geroz eta gehiago baitara euskaraz idatzitako lanak gaztelaniara, frantsesera, ingelesera, alemanera, nederlandera, errusiera eta beste hainbat hizkuntzatarara itzulita ikusten dituzten egileak.

Kritika eta irakurleen aldetik harrera bikaina izatea, atzerriko sariren bat jasotzea Ingalaterran, Alemanian, Espainian edo Estatu Batuetan, oso noizean behin gertatzen zen albiste duela ez asko arte. Bernardo Atxagaren eta Mariasun Landaren lanen arrakasten oihartzunak zetozkigun noizean behin, Itxaro Bordaren argitalpen eta irakurraldien berri, Laura Mintegiren Estatu Batuetako itzulpenaz entzuten genuen. Urte gutxian belaunaldi berri batek bere ahots propioz hornitu eta aberastu zuen literatura, eta hala ari da gertatzen haien ostean datorren belaunaldi oparoarekin ere.

Literatura literatura da hizkuntza txiki baten eta industria zorrotzeneko hizkuntza erraldoian. Ahotsak propioak dira batean eta bestean. Baina begirada eta hurbiltasuna aldatu egiten dira zure lanak lehendabizi hartzen dituen komunitatea milaka lagun batzuk osatzen dugunean, beste bizpahiru hizkuntza handiagoren itzalean bizi garenean ia beti. Bidaiak ez baitira beti urruneko errealitateetara, urruntasun ere norbere auzunean bertan gerta daiteke, norbere familian edo adiskide artean aurki litezke euskaraz ez dakiten lagunak. Badakite zer egiten duzun, baina ez dakite zer den egiten duzuna, zeri buruz eta nola egiten duzun.

Horrelako errealitateen aurrean egiten dute hausnarketa Basque Writing honetako zazpi lagunek. Baina urteotan guztietan PENen ezagutu ditugun lagunei esker badakigu partikular hori oso unibertsala ere badela, berdintsu bizi dutela Europako eta mundu osoko hainbat eta hainbat idazle. Eta ziur gaude testu hauek ere oso hurbileko izango zaizkizuela munduan oso urrun zaudeten askori ere. Gure hizkuntza txikiak, gainontzeko hizkuntza txiki eta handiek bezala, mundu guztia kontatzeko balio baitu.



Urtzi Urrutikoetxea
Basque PEN



Hizkuntza afektiboa eta literarioa

Lerro hauen bidez komentatu nahi nuke euskara hizkuntza literario gisa erabiltzera eraman ninduen bide bihurria. Euskararekin dudana lotura pertsonala aipatu, zer ekarri zidan berandu ikasteak, eta zer gorabeherak inguratu duten nire literatur ibilbidea euskarazko haur literatura modernoaren esparruan. Azaltzen saiatuko naiz zerk bultzatu ninduen hizkuntza minorizatu hau berandu ikastera, zer motibazio pertsonalek bultzatu ninduten horretara, eta zerk lotu ninduen prozesu hartara, etsipenezko uneak gutxi izan ez ziren arren.

Betidanik idazlea izan nahi izan badut ere, nire kasuan, Francoren diktaduraren kontrako Euskal Herriaren erresistentziatzako gorabehera historikoen emaitza gisa har daiteke nire literatur hizkuntzaren hautaketa, erresistentzia horretan baitzegoen, besteak beste, hizkuntza berreskuratzea. Alegia, nire ibilbidea euskarazko idazle gisa, nire belaunaldiko beste askorena bezala, hizkuntzaren gorabeherekin dago lotua, hizkuntza horren estatus soziopolitikoarekin, konpromiso kultural eta politikoaren ideia jakin batekin, nahiz eta ideia hori bakoitzak bere modura ulertzen zuela esan behar den.

Nik euskara neure kabuz ikasi behar izan nuen, baina horrek ez du esan nahi nire gurasoek hizkuntza hori ezagutzen edo erabiltzen ez zutenik, ez nuela txikitan aditu, baizik eta ez zidatela transmititu. Nahiago izan zuten ni gaztelaniaduna izatea, besterik gabe. Hori guztia galtzaileen testuinguru batean, gerraondoan, euskararen errepresio latz baten baitan, frankismoaren errepresio politikoko forma eraginkor gisa. Hortaz, ez dut inoiz neure burua erabat euskaldun berritza hartu, familiako hizkuntza, argi eta garbi, gaztelania edo frantsesa zuten beste idazle euskaldun aipagarrien kasuan gertatu izan den bezala. Euskal soziolinguistikak, sarritan, esaten dena baino askoz ere esparru zabalagoa es-



MARIASUN LANDA

Juantxo Egaña

kaintzen du, are gehiago gure belaunaldiaren ezau-garria den une historiko eta politikoa hartzen bada gogoan, hau da, frankismoaren garaian.

Arrazoimena dudanetik, ordea, gaztelaniaz hizketan gogoratzen dut neure burua: euskarazko hitzez betea zegoen gaztelania batez, azpimarratu behar dut.

Lexikoaren edo sintaxiaren mailan, euskara txertatua egon da gure gaztelanian, baina horrek ez zuen orekatzen nire haurtzaroan krudelki sentitzen nuen errealitatea: neure familia-inguruan, batzuetan, nik ez nekien edo behintzat ezin erabili nuen hizkuntza batean egiten zen. Gogoan dut oso txikia nintzela jadanik interesatzen zitzaidala hizkuntza hura, ikasi nahi nuela, familiaren esparruarekin, aipatzen ez zen baina familiaren giroan sentitzen zen gerra batek zapaldutako eta itotako herri baten sustraiekin lotua zegoena.

Urte beltz haiek zer izan ziren euskal hizkuntza-erentzat xeheago azaldu gabe, esan behar dut gaztelaniaz eskuratu nituela eskolako jakinduria, irakurketak eta erreferentzia kulturalak. Baina horrek eragotzi zidala, esate baterako, nire aitonaarekin hitz egitea. Haren ondoan esertzen nintzen, kartetan ibiltzen ginen, baina ez naiz gogoratzen berarekin lasaldi bat izan nuenik. Ausartuko naiz izendatzen maite den baina menderatzen ez den hizkuntza bati buruzko falta eta frustraziozko sentimendu hura, eta “zauri linguistikoa” izendatuko dut, erruduntasun-ukitu bat ere bazuen barneko sufrimendu baten gisa.

Parisen lau urtez bizitu eta ikasi nuen, eta horrek kultura eta literatura frantsesen ateak ireki zizkidan, nire jakintza eta nire esperientziak zabaltu zizkidan, oraindik ere zorretan sentiarazten nauen modu batean. Baina nire bidaiek itzulerako txartela zeukan bidaia nahi zuen izan, eta halaxe izan zen.

Horregatik, euskara ikastea, hizkuntza afektibo hura ikastea, nire haurtzaroan eta gaztaroan falta izan zen ikasgaia izan zen. Derrigorrezkoa gertatzen zitzaidan euskal errealitatean txertatzeko. Horrela labur daiteke euskarazko –bihotzaren hizkuntzako– idazlea, euskal idazlea izatera eraman ninduen bide bihurria. Nahiz eta gaztelania eta frantsesa izan diren, eta diren oraindik, nire beste bi hizkuntzak, arrazoiarenak seguruena.



Hircocervus-ei buruzko oharra


Hircocervus-ak izaki bitxiak izan ziren, eta hala dira oraindik, akerraren eta oreinaren arteko nahasketa, kimeraren eta ilusio faltsuaren ahaide sinboliko diren alegiazko animaliak. Haien aipu gutxi egin dira historian baina, niretzat, euskal idazle elebidun honentzat zorionez, horietako bat *El Impossible vencido*-ren hitzaurrean dago, 1729an Manuel Larramendik argitaratutako euskarazko lehen gramatikan. Hala dio paragrafoak:

«(...) hasta aora han tenido por imposible reducir a methodo, y reglas el Bascuenze, no solo los ignorantes, sino tambien los doctos, no solo los estraños, sino tambien los propios (del lugar): y aun el dia de oy ay mil incredulos, que juzgan, que Arte, y del Bascuenze son terminos implicatorios (contradictorios), mas que los del hircocervo. Semejantes engaños son comunissimos».

(orain arte ezinezkotzat jo dute euskararen arauak metodo baten biltzea, ez ezjakinek soilik, baita adituek ere, ez arrotzek soilik, baita bertakoek ere: eta gaur egun oraindik badira mila sinesgogor esaten dutenak artea eta euskara elkarren aurkako hitzak/terminoak direla, hircocervus-aren zatiak baino are gehiago. Halako uste okerrak oso ohikoak dira)

Halaxe geunden XVIII. mendearen hasieran, eta halaxe gaude oraindik bi hizkuntza ditugun euskal idazleak, hau da, gure arraro kondizio horren menpe, jauzi bikoitza egin asmo duten hircocervus-ak bezala, burutik euskarazko testura, eta euskarazko testutik gaztelerazkora edo frantsesezkora. Egoera izugarria? Inondik inora. Berehala esaten dut: hircocervus-ak ez dira paradisu bizi orein, lehoi eta papagaiekin, Jan Brueghelek instant-irudi baten atzeman bezala, baina oro har, zoriotsuagoak dira idazle elebakarren edo bere baitan hizkuntza minoritariorik ez duten idazle elebidunen aldean. Batzuek esango didate nire baieztapen hori estrabagantzia bat dela, ilusio erromantiko batek naramala, nire zirkunstantzia kulturalaren ontasunak puztuz: "Laudatu ezazu zure burua, hircocervus, inork laudatzen ez zaituenez gero", espektoratuko dute. Beste batzuek, bihozberago, burua mugituko dute: "kontsolatzen ez dena, nahi ez duelako da". Gurek ere, neurri handi baten teoria inperialen *engaños comunissimos* horiek bere egiten dituzten horiek, hasperen egingo dute: "ezin horrelakorik sinetsi, baina itxaropena da galtzen den azkena".

Denak daude oker. Zerbait pentsatu dute, baina ez birritan, eta hala behar da batzuetan. Berriz diot, beraz, nire hausnar-



BERNARDO ATXAGA

Gorka Salmerón

keta biribildu aurretik: ez dago bere baitan hizkuntza minoritario bat daukana baino zoriotsuagorik. Nabardura bat: idazle gisa, inor ez dago hain ondasun bitxia lortzeko eran.

Franz Kafkaren aipu batekin azalduko dut. Yiddishezko antzerki emandietara joan ohi zen, hizkuntza horretan edo txekieraz idazten zuten egileak lagun eta auzo zituen, eta bere egunkarian -1911ko abenduaren 25ean edo 26an – hausnarketa argigarri bat idazten du, esaten hizkuntza minoritarioetako literaturek indar izugarria izan dezaketela, hizkuntza horietan egiten den edozerk berehala balio politikoa hartzen baitu. Bestela esanda, Pragan yiddisheraz edo txekieraz idaztearen ekintzak berak balio bat zeukan gizartearentzat, eta ondorioz sekulako erresonantzia kaxa bat izaten zuen.

Gaur badakigu hizkuntza baten balio politiko intrintsekoak bere buruaren ere joka dezakeela eta, adibide tragiko bat aipatze aldera, yiddisha ia desagertu egin zela hitler-tarrek haren hiztunen aurka egindako sarraskiagatik; yiddisherazko literaturak, Isaac B. Singer-ek Nobel Sariaren ekitaldian esan bezala, Hilen

Berpizkundearen egunaren zain egon behar du behinolako irakurle masa berreskuratzeko. Baina, hala eta guzti ere, Franz Kafkaren esaldiak zentzua dauka oraindik gaur eguneko Euskal Herrian, diktadura frankistan jasandako errepresioaren ostean, haren erreakzioz eta beste hainbat motibogatik, hizkuntzaren aldeko babes soziala oso handia da.

Hizkuntza minoritario batek bermatu egiten dio idazleari leku bat munduan, existentzia sozial bat. Hori bera ona da. Baina gainera idazle hori egiazko hircocervus bat bihurtzen bada, bere baitako bigarren hizkuntzan bere obraren itzulpen edo bertsioak eginez eta argitaratuz, harri batez bi txori, bere liburuak bigarren bizitza bat eta espazio literario zabalagoetarako iristeko aukera izango dutelako. Ondorio negatibo bakarra denbora falta izango da: elebakarren gauza bera argitaratzeko ordu gehiago, egun gehiago beharko ditu; ezingo du, haiek bezala, nobela amaitu eta lagunekin afaltzera joan ospatzeko; jarleku gogorrera lotuta jarraitu beharko du bigarren testuari forma emateko. Ez da ondorio hutsala, eta baliteke hircocervus-ekin nolabaiteko harremana dutenek ezagutzea nola aldarrikatzen duen behin eta berriz denbora urrea dela, eta nola kexatzen den aurten ere, iaz bezala, ezin izan duelako oportetara joan.



Nondik idazten dugun

Euskaraz dihardugun idazleok txiki eta bakan ikusi izan dugu gure burua eta, sarri askotan txikiaren eta bakanaren harrotasuna sentitu izan dugu, txikia eta bakana izateak abantaila balu bezala.

Ez da meritua txikia eta bakana izatea. Izatez zara txikia eta bakana. Demeritua ere ez da. Hizkuntza edo kultura bat ez da gutxiago txikia eta bakana izateagatik.

Idazle katalan batek esaten zidan idazle euskaldunok zorionekoak garela, euskaraz idatzi den literatura guztia-guztia urte gutxiren epean irakur dezakegulako, Hain da urria! Neuk ez nion ikusi zorionekorik tradizio literarioan horren umezurtzak izateari. Euskal literaturaren historia, egia da, laburra eta urria da, eta esan genezake inoiz ez direla bi idazle belaunaldi aldi berean idazten aritu, literaturgintzak etengabeko etenak izan dituelako, gora behera politiko larriengatik.

Euskal literaturaren historian lehenengoz ari dira lau idazle belaunaldi batera, 1970eko hamarkadan hasi ziren haiek oraindik ere jarduten dutelako eta, gainera, berezko ibilbidea garatzen ari direlako. Belaunaldi berriek, azkenean, *aita erail* izan ahal dute literarioki hazteko.

Herri txiki honetan non denok ezagutzen dugun elkar, idazleak badaki nor den bere irakurlea. Irakurlearen profil zehatza gogoan du lerro bakoitza idazten duenean. Erreferente historiko eta kulturalak erabiltzen ditu propio, eta metaliteratura presente dago testuan, unibertso kultural berekoak izateak ahalbidetzen diolako hitz gutxiarekin asko esatea.

Euskaratik beste hizkuntza batera itzulpen digutenean, atzemaiezina da irakurlearen profila. Ez dago jakiterik erreferente kulturalak adituko dituen. Itzulpen literarioarekin konnotazio kulturalak galtzea ez da arduratzekoa. Merezi duen istorioak bide egiten du irakurlearengana, aberatsago ala kamutsago.

Egiatan arduratzekoa da idazleak berak kamustea bere testua idatzi bitartean, jakin badakielako atoa itzuliko diotela beste hizkuntza batzuetara.



LAURA MINTEGI

Dani Blanco

Garai batean idazleek eztabaida ideologizatuak izaten zituzten: zer da garantzitsuagoa, **zer** idatzi ala **nola** idatzi?. Gaur egungo idazle batzuen ardura da zer edo nola idatzi, **noraino** heltzeko. Nork irakurriko du itzulitako nire literatura?

Idazle hauen lehen tentazioa da balizko irakurlearengana hurbiltzea. Kode zabalagoak erabiliko ditu, hizkuntzaren sinpletasuna bilatuko du, topo amankomunak, ezaguterrazak, eta irudia bilatuko du, grafikotasuna, atzerriko irakurleek aditzeko moduko istorio eta deskribapenak.

Ondorioak nabariak dira, baina. Lexiko arrunta nagusiko da polisemiaren kaltetan. Hitz bakoitzari imajina bakarra, eta beti bera, erantsiko zaio. Kulturarteko erreferenteak erabiliko dira, egitura komunak, lengoia denotatiboa. Bazter utziko dira polisemia, berezko lexikoa, traidizioan erroturiko metaliteratura eta lengoia konnotatiboa.

Gai "lokalak" baztertuko dira, "nazioarteko" gaien mesedetan, eta kolonialismo kulturak ereindako *topos*-ean murgilduko da.

Eta ahalegin hau guztia, zertarako? Irakurle kopurua hedatzeko baldin bada, alperrikakoa izan daiteke esfortzua.

Irakurle "nazioartekoa" ez da existitzen, existitzen ez diren bezala estatistiketako portzentaiek ematen dizkiguten subjektu abstraktuak. Inon ez daude batez besteko profilak. Irakurlea ez da hemengo erdiarekin gehi hango erdiarekin osa daitekeen unitatea, baizik eta nonbait eta noizbait zehatz batean kokaturiko pertsona osoa. Pertsona horrek zerbait identifikagarria irakurri nahi du, inongo koloreaz eta inoizko usainaz. Bere espazio eta bere garai berekoa izan daiteke ala ez, baina nonbait eta noizbait koka daitekeen istorioa, estiloa, hizkera, lengoia, espresibitate, sentikera...

Ez badakigu ere **noraino** helduko den idatzi duguna, jakin behar genuke **nondik** idazten dugun, non eta noiz sortu dugun gure mundu literarioa.

Egia handia gauza txikietan aurkitzen da. Miss Marple-k erakutsi zigun mundu zabaleko erreakzio eta sentipen guztiak, tamaina txikian, beraren auzokideen artean zeudela islatuta.



Txikien handitasuna

Pentsatzen da, gutxi hedaturiko hizkuntza eta kartetan ageri ez diren herrialdeetako idazleak ikus ezinak direla. Egia bada horretan, Euskal Herria bezalako eremu urrian bertan, iparraldeko izkiriataileok neurri batean jada itzalerak bulkatuak gaude, kopurutan ahulegiak garelako hegoaldeko sortzaileen olde eta kultura indartsuaren eretzean plazaratzeko! Zer erran orduan, Europa edo lur honen mailan? Begi hutsez nehorik ez gaitu ikusten, alta... bakarretan, munduan barrena ibiltzera deitzen gaituzte. Eta suertez, euskaraz gain, beste erdara pare bat ezagutzen dugu: euskaraz ez dakiten idazleekin mintzatzen ahal gara, etxe-alde gehiengotan.

Hegoaldeko idazle entzutetsuak bistan dena, bai eta iparraldeko ere gonbidatzen gaituzte Europan zehar poemak irakurtzera, mahai-inguruetan parte hartzera edota erresidentziak egitera, Alemanian edo Italian adibidez. Egia erran, ez gara idazle profesionalak eta bizitza irabazteko (edo galtzeko?) eguneroko lanetan ere ari gara, ez direnak baitezpada literaturarekin, kazetaritzarekin edo irakaskuntzarekin lotuak. Norabait joateko, hau da gonbita bati baiezkoan ihardesten, zirkuetako kontortsionista bat bezala arizan behar dugu laneko orduarekin, buruzagiarekin negoziatu, lankideekin hitzartu, ez da erraza. Badakigu, gure lantokietan, noraino biluzi diren langile egiturak, libratzea beraz neketsua eginez.

Idazle-langile proletario bat izan naiz urte luzeetan. Askotan, etxetik ateratzeko literaturaren aitzakian, ene opor egun prezioitsuak erabili ditut, azken finean bakarretan pausarik gabe gelditzeraino, bereziki Seaskako presidentea nintzen garaian! Hala ere, saiatu naiz, eskuratzen nituen proposamenei baietza ematen eta horrela Europako eta Ameriketako leku asko ezagutu ditut, bertako idazleekin harremanak irun, edozein tokitako giroak dastatu, ikusiak eta ikasiak nire aldian ene langintza literarioan birziklatzeko, poema edo testu anitz, bidaia kaier edo lekukotasun antzera agertzen direla ene bildumetan. Bidaia literario horiek, ene burua deszentratzeko baliabideak izan dira, bai eta europar zuri ikus-puntutik urruntzeko, bereziki Mexikon egon nintzelarik hiru astez, Frantziako Enbaxadako zerbitzu kulturalak deiturik Frankofoniaren hilabetearen karietara, 2007an.



ITXARO BORDA

Handik aldatua itzuli nintzela aitor dut, nahiz eta dakidan ideologikoki, ez dagokiola euskal idazle bati frankofonia ohoratzen den ekitaldietan parte hartzea. Norbera bere kontra-erranen gatibu dela senditzeko ere balio dute kanporako bidaiek.

Beste ezaugarri bat azpimarratzen ahalko nuke. Euskal idazleok, ipar eta hego bildurik behingoz, askotan gure egoera prekarioaz negarrez ari gara, arrazoiekin. Bidaia, kongresu edo ataraldietan beste herrietako izkiriataileekin solastatuz ohartzen gara, frankotan, egoera latzak eta larriak badirela planeta honetan zehar eta idaztea ez dela sinekura bat. Hemen, inperfektuak izanagatik, literaturaren inguruko egiturak badira, funtzionatzen dute eta idazle gisako bizitza bat eraman dezakegu, behinkaria baina segitua. Badira halaber gureak baino babes politiko gutxiago duten hizkuntzak ere. Erdi eta hego Ameriketara nagusiki. Ez du ingurune gogor horrek, idazlea, baikorki idaztetik urruntzen. Horretaz jabetzea enetako izan da urrats handi bat, hainbat non, orain gure artean, batzuek euskararen diglosia egoeraz konturatzen ez naizela uste duten!

Ene mailan, ez naiz munduan barna gehien ibiltzen den euskal idazlea, hainbat eta hainbat ibilirik, iruditzen zait kasko zokoan badudala halako harreman literario eta kultural sare bat, munduan barrena gertakari ez beti zoriontsuak agitzen direnean, erran dezakedala delako hura ezagutzen dut Iraken edo Sirian, Ghanan edo Malin, Bruselan edo Pontevedran. Behin egon nintzen PEN erakundearen biltzarrean Reykjaviken eta handik bueltatu nintzen munduko idazle eta hizkuntza ezberdinen armiarma tela hunkigarri batean harrapatua. Ezagutzen ditudan izkiriataile horiekin mezu eta gutun bidez harilkatzen ditut urratsak, ez ditut sekula ahanzten, guztiek nire sorkuntzari zerbait ekartzen diete, batez ere, gorago aipatu dudana premiazko desentratze sentimendua.

Gauza batez ziur izan beharko genuke: txikitasanak, itzalean jarduteak, ikusezintasunak ez ditu idazleak idaztetik eta idazle izatetik baztertzen, alderantziz, parean badagoelako solas eta abentura kide ukan dezakezun lagun bat, parekoa, ezezaguna, hizkuntza edo kultura txiki batekoa, gurekin ibiltzeko zutitzen dena! Etxetik at, munduaren aniztasun hor dugu itxuraldaketa esperientziak bideratzeko prest...



Formatik idazten

Nire alabak historia maite du. Antzinako Egipto. Eta Playmobila ere maite du. Beraz, Playmobil bat egin nion opari bere urtebetetzean. Baina konturatu nintzen figura gizonezkoak zirela. Faraoia, soldadua, lapurra, baita eskeletoa eta momia ere. Nola jolastu behar zuen nire alabak? Emakumezko figura bat behar zuen. Katalogoan bilatu eta Kleopatra aurkitu nuen. Beste hoge euro ordaindu. Konponduta.



Komunitate gutxitu edo baztertu batekoa zarenean gehiago ordaintzen duzu sarritan. Hala izaten da askotan beltzekin, gay eta lesbianekin eta begetarianoekin: gehiago lan egin, itxaron eta ordaindu behar duzu. Ni neu gutxiengoa batekoa naiz, euskalduna. Franco diktadorea agintean zegoenean Kirmen izena bera debekatuta zegoen. Baina amak hala ere horrela izendatu ninduen erregistroan. Francorentzat, kulturik gabeko pobreen hizkuntza zen -alferrikako hizkuntza bat, are okerrago, Espainiako gerra zibil galdu zutenek hitz egiten zuten hizkuntza.

Francoren heriotzaren osteko 40 urteotan, hala ere, lan handia egin da euskaraz, kulturarako, zientziarako eta komunikaziorako hizkuntza egokia izateko. Euskaldunen kopurua gorantz doa, baita euskararen presentzia gizartearen ere. Are gehiago, hainbeste hazi da euskaldun idazle bat Iowara bidali dutela!

Gutxiengoek sarritan tentsioak dituzte gehien- goen komunitateekin, baina badituzte barne-gatazkak ere. Gutxiengo batean bizitzea espetze moduko bat ere bada. Ondasun kolektiboa norbanakoaren gainetik dago. 80ko hamarkadako Euskal Herriko ume nintzela, alde guztietan indarkeria komunala daukat gogoan. Hitz batek berezi gogaitzen ninduen: "zuek". Etengabe erabiltzen zen eztabaidetan. Hainbestetan jaurtitzen zen hori, "Zuek, ez zuek", batak besteari, "zuek" hori nor zen ere pentsarazten zizula: E (euskaldunak), edo agian EE (euskaldun ezkertiar- rarak), edo agian IADEE (indarkeriaren aurka dauden eus- kaldun ezkertiararak), edo (IADLIDEE) indarkeriaren aurka dauden eta liburuak irakurtzen dituzten euskaldun ezker- tiarrak, edo zergatik ez (IADLIDJJMDEE) indarkeriaren aurka dauden eta liburuak irakurtzen dituzten eta Joyceren

KIRMEN URIBE

Ulysses maite duten eus- kaldun ezkertiarak – hori neu bakarrik nintzen. Asal- datzen ninduen talde baten baitan identifikatzeak, eta ez norbanako pertsona bezala.

Nola izan zure komuni- tatearekiko leial eta kritiko aldi berean? Hori da auzia. Nola eraiki mehatxatutako kultura bat eta hizkuntza ahulago bat errespetatzen duen gizarte bat, eta hala- ber errespetatu bere baitan bizi diren nortasun anitzak?

Erantzuna "Euskal Herrian"

aurkitu nuen, zeinak euskaraz mintzo den pertsona multzoa esan nahi duen. Euskal Herria ez da leku bat, hizkuntzak lotutakako jende multzo bat baino. Euskalduna beraz, euskaraz dakien edonori dagokio, edo ikasi nahi duenari, genetikaren, pasaporteen eta mugen gainetik. Hala, bai nire japoniar itzultzailea bai nire ama euskaldunak dira! Gaur egun, migratzaile asko hartzen ditu euskal gizarteak. Egun, migra- tzaileak eta haien umeak euskal hiztunen gehiengoa dira, ez duela hiru edo lau belaunalditik datorren ondasunaren hartza- ileak. Aurrerapausua da.

Hizkuntzak gauza biziak. Hala, parekoak dira -erres- petatu eta gorde egin behar ditugu. Berriki, Dublinen idazle ezagn bati entzun nion esaten swahiliera garrantzi gutxiko hizkuntza dela ingelesaren aldean. Gaitzesgarria. Antzeratsu, duela 40 urte, Espainiako presidenteak esan zuen euskaraz ezin zela fisikarik irakatsi. Gaur egun, euskal fisikari bat Nobel sarirako hautagaia da.

Gutxiengo batekoa bazara, lan gogorra daukazu. Lite- raturaren eremuan, zuk idatzi behar omen duzunari buruz besteez dituzten *cliché* eta aurreiritziak borrokatu behar di- tuzu. Idazle baten lana ez da leku baten berezitasun exotikoez idaztea, komunitatearen eta munduaren barnean indibiduok daukan leku ezberdindu batetik idaztea baizik. Joyce eta Beck- ett irlandarrak ziren, baina ez dizute ardiei buruz idatziko. Bazterretik idatzi zuten, eta horrek forma berrietan idazteko askatu zituen. Kontrol sozialetatik libre, idatz dezagun beldur edo loturarik gabe, neskato batek Playmobil piramide batekin bezala. Hara, alabari ez zitzaion Kleopatra gustatu. Nahiago zuen lapurra, zeina, bere begien irudimenean, emakumezkoa zen.



Euskaraz idaztea

Literatura euskaraz idaztea, lehendabizi, idatzi aurreko hautu baten ondorio da. Hizkuntza gutxituak hitz egiten ditugunok behartuta gaude elebidunak izatera. Euskaraz dakigunok, euskaraz eta espainieraz dakigu, edo euskaraz eta frantsesez. Beraz, aurreneko urrats horretan bereizgarri bat dago. Lehendabizi zein hizkuntzatan idatzi aukeratzaren dugu. Beste hizkuntza askotako idazleek kuestionatu ere egiten ez duten aurretiko erabaki bat da. Hautua, beraz, papelean hitz bakar bat idatzi aurretik hartzen da, eta ez da kasuala edo anekdotikoa, aitzitik konnotazio asko dituen erabakia da.

Normalizatuta ez dagoen hizkuntza batean idaztea erabaki dugu, normalizazio-bidean dagoen hizkuntza baten (EAEn gaztelaniarekin batera da ofiziala, eta biztanleen ehuneko 37k ezagutzen dute eta ehuneko 20k hitz egiten dute hizkuntza). Gure herrialdean bertan, gure hirian, gure auzunean, pertsona askok ez dute ulertzen idazten duguna. Sarritan, ezezagunak gara gure komunitatearen barruan ere.

Bestetik, idazten dugun hizkuntzak milaka urte izanda ere, paradoxikoki, nerabezaro moduko bat bizi du, duela mende erdi eratu baitzen euskara batua. Hizkuntza zahar eta, halaber, berri batean idazten ari gara, horrek dakarren erreferentzia faltarekin baina, aldi berean, askatasunarekin. Nire belaunaldiko idazleak gara ikasketa guztiak euskaraz egin ditugun lehenak, eta alde horretatik, abantaila dugu aurreko idazleekiko. Baina hala ere, gure hizkuntzak etorkizuna ziurtatu gabe daukala jakitun izanik idazten dugu.

Elebiduna izateak idazle askok bere lanak itzultzea ere badakar. Liburu horiek, hala, jato-



KARMELE JAIO

rrizkoaren berridazpen bihurtzen dira, moldaketa, itzulpen baino gehiago. Beste egile batzuk itzultzen dituen itzultzailea leialagoa da jatorrizko testuarekiko, norbere lanak itzultzen dituenaren aldean.

Itzulpenarekin jarraituz, beste bereizgarri bat sarritan “zubi-hizkuntza” batetik igaro beharra da. Euskarazko lan askotatik beste hizkuntza batzuetara egin-dako itzulpenek beste bertsio bat erabili dute, gehienetan gaztelaniarazko bertsioa, jatorrizkoaren eta itzulitako hizkuntzaren arteko zubi gisa.

Hizkuntza minoritario batean idazten dugu, baina gai unibertsalak darabiltzagu. Literaturak gai unibertsal batera hurbiltzeko daukan era bakarra gauza zehatz eta hurbiletik abiatzea da. Kasu honetan, gure hizkuntza txikitik eta gure mundu txikitik.

Bernardo Atxagak gela handi baten sartu nahi duen sagu txiki batekin konparatu du inoiz idazlearen lana. Saguak, Atxagak dioenez, ate erraldoi eta astunik zabaldu gabe lortzen du areto handietan sartzea. Zulo txiki batetik egiten du, horman dagoen zirrikitu batetik, eta saguak bezala, idazleak ere istorio zehatz baten bidez, bere buruan sortutako askak bakar baten bidez hitz egin nahi du unibertsalaz. Horrela hitz egiten du maitasunaz, heriotzaz, denboraren joanaz: pertsona baten bizitza, haren pentsamenduak, ziurtasunak eta kontraesanak erakusten dizkigun zulo txiki batetik.

Atxagaren konparazioa lagungarria da hizkuntza gutxituetan idazten dugun egileon egoera ikusarazteko ere. Hizkuntza gutxitu batean idazten dugu irakurle unibertsal batentzat. Mundura zabalik idazten dugu. Munduaz idazten dugu, eta konkretuenetik egiten dugu, hurbilenetik. Geure hizkuntzatik.



Simetria ezinezkoak

Zein da gure artean euskaraz sortzen den kulturaren eta gaztelaniaz sortzen denaren arteko harremana? Badago erantzun politikoki zuzen bat, gezurra ez izan arren oso interesgarria ez dena: harremana gero eta hobe da. Lausotzen ari da hizkuntza ideologizatzen zuen automatismo zaharra, garai bateko aurreiritzien pisua. Blokeen sasoia amaitu da, gora arrakalak, arrakaletan sortzen direnez loreak. Baina mikroaurreiritziek hortxe darraite, sotil eta disimuluan, ukiezin. Luzeegi ohitu gara azaletik elkar epaitzera, aztura txar hori ez da bat-batean galtzen. Egia esan, galderak berak tranpa du bere baitan, aurre-suposatzen baitu euskaraz bizi eta lan egiten dugunok multzo itxi eta bereizita osatzen dugula. Eta ez da horrela. Euskal sortzaile guztiak garelako erdaldun, eta sarri aritzen garelako gaztelaniaz, geure lanari lotuta edo lotu gabe. Gure euskaltasuna intermitentea delako. Ia denok garelako, ezer baino lehen eta egunerokotasunaren praxian, erdaldun. Eta gero, gutariko batzuk, euskaldun ere bagara, zenbait lekutan, ordu batzuez. Euskal kulturazalea, honenbestez, mugarraren garraio dabil, joan-etorrian, (auto)itzulpenaren gazi-gozaok dira bere eguneroko ogia. Bere lana egiteaz gain, bere giroaren ordezkari, proselitista edo predikadore izatera derrigortua dago. «Eta zuen mundutxo horretan, zer berri?», galdetzen dizute tarteka. Euskal sortzaileak berriemaile bereziarena erantsi behar dio bere lan zerrenda jada luzeari; Albanian bidaian izan garen turistaren pare gabiltza gure kulturari buruz etxean hizketan. Baikor jarrita, esan genezake gure nekea dela gure kapitala; eskala diferentea duten multzo ezberdinetan egoteak eta hizkuntza ezberdinetan aritzeak aberasten gaitu. Gure mundutxoaren marketing arduradun gara, halaberharrez hauspotzaile, defentsaren abokatu. Ikusgarritasun ezak sortzen digun amorruak du horren errua, jakina: Beyonce, Rosalia edo Perez Reverteren berriak osmosi bidez xurgatzen dituenak arazo gehiago dauka gertuagoko sortzaileen existentzia hautemateko, ulertzen baitu euskal multzo itxia endogamikoa dela eta egiten duguna ez doala haiekin. Edo, hobe esan, ez doala inora.

Nekeza da gurea bezalako bokazio batetik soldata ateratzea, eta horrek bakarrik sortu behar luke jada halako «klase kontzientzia» bat gure artean, gremio berekoon arteko elkartasuna, darabilgun hizkuntza edozein delarik ere. Eta sortzen du. Bestalde, hizkuntza ez da determinantea, konplizitateak garatzeko orduan garrantzitsuagoak suerta daitezke kidetasun estetikoak. Baina hori ere ez da guztiz egia: gaztelaniaz idazten duenaren begiak, normala denez, adiago daude Espainiako joera, literatur gehigarri eta polemiketara; ni berriz, hotz uzten naute haiei pizgarri zaizkien sestrekin. Gaztelaniaz sortzen duenak Espainian bilatzen du homologazioa, eta, harri batez bi txori, ni ere bertan homologarazi nahi nau. Idazle albaniar sentitzen



HARKAITZ CANO

naiz halakoetan. Atzerritar nire herrian. Haiek berriz, euskarazko munduaren albiste urrunekin konformatzen dira, oro har. «Eman titularrak, arren». Esan nahian bezala: «Mundua zabala da; jakin-minak ere baditu bere mugak». Horretan ez zaie arrazoirik falta; estatistikaren arabera, euskal hiztunoi ez zaigu gabonetako loterian Shakespeare tokatzen.

Euskal musikariak, zinegileak, aktoreak... kotizatuak daude hemen eta kanpoan. Euskara color local dei genezakeen ñabardura kitsch baten mailan geratzen den heinean, beti ere. Ukaezina da Amets Arzallusek aspaldi ez dela adierazi duena, denok gaudela euskararen alde, hura erdigunean kokatzen ez dugun bitartean. Izan ere, harrotzea denean kontua, askoz ere erosoago zaigu hizkuntzarik ez duen kultura batez harrotzea. Gure artean, bi adibide garbi daukagu azken hamarkadotan: eskultura eta sukaldaritza. Ez da kasualitatea bi arlo hauek izatea nazioartean geure marka saltzeko –barka itsuskeria– gehien erabili direnak. Are, esan genezake iraganean eskultura zena, orain sukaldaritza dela, hainbestetan aipatzen dugun Zygmunt Baumanen modernitate likido maiztuak likidatu egin dituela Chillida eta Oteiza, zentzu materiokoan eraldatu, eskultura efimero gisa saltzen denez gastronomia. «Hizkuntzarik ez duen kultura» diogunean, ordea, tranpa egiten dugu berriro: eskultoreak eta sukaldariak gaztelaniaz lanean bihurtu baitira izar, ia beti.

Elebitasunaren simetria saldu digute, baina simetriaren pisua alde bakarrak darama bere gain: «errepikatuko duzu gaztelaniaz euskaraz esan duzuna?» eskatzen digute hobebeharrez, «jende guztiaengana» heltzeko aitzakiarekin. Eta guk amuari heldu, aurkezten ari garena euskarazko nobela izanagatik. Etengabe eskatzen zaigu jatorrizkoaren itzulpena, gure buruko disko gogorren partizioa. Barka, hori ez da simetria, menpekotasuna baizik.

«Euskara ez jakiteko eskubidea» aldarrikatu zuen duela zenbait urte idazle batek. Eskaera bitxia, inondik ere. Eta hor ere aplikatuko bagenu simetria? Zer ez ote liokete leporatuko «gaztelania ez jakiteko eskubidea» aldarrikatuko lukeen euskal idazle bati?

Esango dute garaia horrelakoak direla, hautua librea dela, globalizazioaren kontuak, multikulturalismoa besarkatzea dagokigula. Ivan de la Nuezek bi-biak kritikatzeko, ordea, «Teoría de la retaguardia» saiakera gomendagarria: multikulturalismoa litzateke «piztia bakoitza bere kaiolan» sar-tzeko modua, eta globalizazioa berriz, «piztia guztiak kaiola berean sartzekoa, beti ere, piztia hauek aski bezatuta badaude». Zein kaiola hautatuko dugu munduan egoteko? Kaiolen artekoa da gure hautu librea? Geometria erabili dut gure egoera azaltzeko, baina agian zoologiak hobeto esplikatuko lituzke zenbait kontu. Hizkuntzek ere borroka egiten dutela, alegia, espazio fisikoagatik zein sinbolikoagatik. Euskarak, zehazki, biziraupenagatik.